

4. Segurtasuna

4.2. Datu pertsonalen eta identitate digitalaren babesa:

4.2.5. Besteen pribatutasuna errespetatzea

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Segurtasuna.
Datu pertsonalen eta
identitate digitalaren
babesa**

Besteen pribatutasuna errespetatzea




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



Besteek sarean intimitaterako eta pribatutasunerako duten eskubidea aitortzea.

Gaiari buruz indarrean dagoen legeria ezagutzea.

Besteen pribatutasuna errespetatzeko zer jokabideri erreparatu behar zaien jakitea: **netiketa.**

AURKIBIDEA

- **Intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea**
 - Kontzeptua
 - Legeria
- **Netiketa**
 - Kontzeptua
 - Besteen pribatutasunarekin loturiko Netiketa
- **Gehiago jakiteko...**


INTIMITATERAKO ETA PRIBATUTASUNERAKO ESKUBIDEA



Galdetu al diozu inoiz zeure buruari...?

- **Nork babesten duen zure intimitaterako eta pribatutasunerako eskubidea Interneten?**
- **Eta besteen eskubideak?**
- **Ba ote dagoen jokabide-araurik Interneten?**

INTIMITATERAKO ETA PRIBATUTASUNERAKO ESKUBIDEA



Espainiako eta Europar
Batasuneko lege-
esparrua



- ★ [Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala](#)
- ★ [Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna](#)
- ★ [Espainiako Konstituzioa](#)
- ★ [Europar Batasuneko Datu Babesari buruzko Araudi Orokorra](#)
- ★ [Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko Legea](#)

1

LEGERIA

Giza Eskubideen Adierazpen

Unibertsala, NBEren Batzar Nagusiak onartua (1948).



12. artikuluan ezartzen da bizitza pribaturako eskubidea giza eskubide bat dela: «Inork ez du jasango bere bizitza pribatuan, bere familian eta beste edozein entitatetan injerentzia arbitrarioz egiterik, ezta ohorearen edo ospearen aurkakorik egiterik ere. Pertsona orok eskubidea du halako injerentzia edo erasoen aurka legearen babesa izateko».

Eskubide Zibil eta Politikoen
Nazioarteko Ituna, NBEren Batzar
Nagusiak onartua (1976).



17. artikuluan, honako hau xedatzen da:

- Inork ez du jasango bere bizitza pribatua, bere familian, bere bizitokian edo bere korrespondentzian injerentzia arbitrario edo legez kanpikorik egiterik, ezta bere ohorearen eta ospearen aurka legez kanpoko erasorik egiterik ere.
- Pertsona orok eskubidea du halako injerentzia edo erasoen aurka legearen babesa izateko.

Espainiako Konstituzioa (1978)



I. tituluko 18. artikuluan (funtsezko eskubideei eta askatasun publikoei buruzko eskubideen atalean), bizitokiaren intimitaterako eta bortxaezintasunerako eskubidea bermatzen da. Areago, beste hau ere ezartzen da: «Legeak herritarren ohorea eta intimitate pertsonala eta familiarena eta haien eskubideak salbuespenik gabe betetzen direla bermatzeko informatika erabiltzea mugatuko du».



★ Europar Batasuneko Datu Babesari buruzko Araudi Orokorra (2016)



★ Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko Legea (2018)

NETIKETA

- ✓ Honela laburbildu liteke Universiak **netiketaz ematen duen definizioa**: sarean erabili behar diren jokamoldeen multzoa, hau da, mundu elektronikora egokituriko jokabide- eta komunikazio-arauak.

Netiketak ez dira ez arauak, ez legeak, baizik eta **inork inposatu gabe onartzen diren akordioak**. Komunikazioa errazten dutenez, gehiengoak onartuak dira.

Badira zenbait netiketa mota: Interneteko netiketa orokorrak, txatetakoak, blogetakoak... Netiketaz gehiago jakiteko, kontsultatu *2.4.1.*

Portaera sarean atala.


Netiketa hitza
netiquette-tik
dator, eta
frantsesezko
étiquette (etiketa)
eta ingelesezko
net (sarea)
hitzetan du
jatorria.

NETIKETA ETA BESTEEN PRIBATUTASUNA

- Ez argitaratu beste pertsona batzuekin loturiko datu, argazki, bideo edo informaziorik haren baimenik gabe.
- Beste pertsona batzuek argitaraturiko argazkiak etiketatu aurretik, eskatu baimena.
- Neurtu argitaratzen dituzun kritikak: beste pertsona batzuei buruzko iritzi edo iseka bat argitaratzeak haren eskubideak urra ditzake, are legearen aurkakoa izan ere.
- Erabili etiketak modu positiboan, ez beste pertsona batzuei iseka egiteko, umiliatzeko edo min emateko.

- Errespetatu besteen erabakiak, zure lagun-eskaerei, ekitaldietarako eta taldeetarako gonbidapenei eta abarrei jaramonik egiten ez dietenean.
- Salatu soilik garbi badago helburua sarean modu egokian parte hartzen dutenei kalterik ez egitea dela.
- Irakurri eta errespetatu sare sozial bakoitzaren erabilera-arauak.

GOGORATU



Zure eskubideak babesten dituzten
legeek besteenak ere babesten dituzte.

GEHIAGO JAKITEKO...

Espainiako Datuen Babeserako Agentzia

Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari
buruzko Legea ulertzeko laguntza

Netiquétate

Sare sozialetako gazte-netiketa: herritar digitalak eta
ziberbizikidetzak



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
Tel. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
Tel. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Dorleta, zk.g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
Tel. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa
Biblioteka**

Iturripe campusa. Loramendi, 4. 20500 Arrasate, Gipuzkoa.
Orona Ideo campusa. Fundazioa eraikina, Jauregi bailara, zk.g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
Tel. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu